

Intsumisioaren despenalizazioak ez du Parlamentuaren onespénik

UPNk atzera bota du proposamena, PSN-PSOEn laguntzaz

Intsumisioa despenalizatzearen aldeko adierazpen proposamena atzera bota zuten atzo UPNk eta PSNk, Nafarroako Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordean. Sozialisten irudiko, «ez zen toki ez eta une egokia ere»; eta erregionalisten arabera, berriz, «legea den modukoa da, eta kito». CDN, EA, HB eta IUren botoek ezin izan zuten deus egin bi alderdi nagusien kontra.



Intsumisioaren alde Iruñean egindako manifestazio bat.

JOXE LACALLE

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

ORAIN arte intsumisioak zailtasun handiak izan ditu Nafarroako Parlamentuan eztabaidatu dadin, PSNk eta UPNk behin eta berriz gai zerrendako ateak itxi dizkiotelako. Haatik, joan den asteazkenean PSNk Parlamentuko Bozeramaileen Mahaian onartu zuen -CDN, EA, HB eta IUekin batera- Giza Eskubideen Batzordeak gaia aztertzea.

Horrenbestez, Batzordeak intsumisioa jorratzeko ezohiko bilkura egin zuen atzo. Antimilitaristak baikor ziren, uste zutelako PSNren jarrera aldaketa harago joan zela, eta, haren boteen laguntzaz, posible izanen zela Parlamentuaren intsumisioaren aldeko adierazpena lortzea. Alta, PSNk Batzordean bere ohiko jarrera eta argudioak berreskuratu zituen. UPNrekin batera, sozialistek IUK aurkeztu intsumisioaren aldeko proposamenaren aurka bozkatu zuten, oro har, gainera, puntuz puntuko bozketa egin gabe.

Bere jarrera azaltzeko tenorean, PSNk esan zuen ez zela gaia aztertzeko toki eta une egokia. UPNk, berriz, adierazi zuen legea den modukoa dela. Gainontzeko alderdiak -CDN, EA, HB eta IU- haserre azaldu ziren, batez ere sozialistekin. Esan zuten Nafarroako Parlamentua toki ezin aproposagoa dela Nafarroako gizartearen intsumisioaren aldeko jarrera politikoa adierazteko, eta, heldu den ostegunean intsumisio nafar baten aurkako gerra kontseilua egiten dutenez, une ezin hobea zela adierazpen hori egiteko.

Proposamenak lau puntu zituen. Lehen puntuak proposatzen zuen elkartasuna eta sustengua adieraztea ostegunean, hilak 22, Coruñan gerra kontseiluan epaituko duten Ignacio Ardanaz intsumisio-desertoreari. Bigarrenak proposatzen zuen intsumisioaren despenalizazioaren -lege araudi zibilean zein militarrean- aldeko adierazpena egitea. Hirugarrenak proposatzen zuen egun intsumisioek jaso-

zuten dituzten zigorrak baliorik gabe uztea. Azkenik, laugarrenak proposatzen zuen Parlamentuak Ardanazen gerra kontseilura ordezkari bidaltzea.

Actuelgo sarraskiaren aurkako adierazpena • Intsumisioaz landara, Mexikoko Chiapasko estatuko egungo egoera aztertu eta aho batez onartu zuten Chiapasko Actuel herrian izan sarraskia gaitzesten zuen adierazpena. Abenduaren 22an, talde paramilitarrek 45 lagun hil zituzten, eta 25 larri zauritu zituzten. Sarraskia gaitzesteaz gain, adierazpenak eskatzen zion Mexikoko Gobernuari gertatutakoa argitzea, eta erantzule guztiak zigortzeko. Halaber, dei egiten zuen gatazka elkarriketaren bitartez gainditzeko.

Parlamentarioek Chiapasko egoerari buruzko informazioa jaso zuten Rofolfo Izalen -Chiapasen apaiz egondakoa kanporatu zuten arte- eta Ixim Chiapasen aldeko elkartasun taldeko kide Iñaki Ordoñezen eskutik. X

Langile batek berotzeko egindako suak eragin zuen Berangoko sutea

Eusko Jaurlaritzak ingurugiroan izandako eragina aztertzeko eskatu du

Erredakzioa / Bilbo

LANGILE batek berotzeko bidoi batean egindako suak eragin zuen Berangoko Botrade enpresako sutea. Haizeak txinpartak eraman zituen inguruan pilatuta zeuden telefono eta kabletara eta su hartu zuten. Galerak ehun milioioak izan dira.

Alberto Leidler Botrade enpresako gerenteak jakinarazi zuenez, sua egin zuen langilea nor den ikertzen ari dira, eta «azken ondorioetaraino» heltzeko asmoa daukate. «Bidoi barruan sua egitea ohikoa bada ere, enpresa honetan erabat debekatua dago, beraz, zuhurtzigabetasun larriko kasu bat da, eta abokatuen esku

jarriko dugu. Langileari espediente ireki eta enpresako zigorrak guztiak jarriko zaizkio», adierazi zuen.

Enpresa sua zein langilek egin zuten ikertzen ari den bitartean, Eusko Jaurlaritzak suteak ingurugiroan izan duen eraginari buruzko azterketa eskatu dio enpresari. X

laburrean

■ EAEko gasolindegia hiru hilabeteen behin ikuskatzen dira

EUSKO Jaurlaritzako Industria eta Kontsumo sailek maiztasun handiz ikuskatzen dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko gasolindegia, guztira 20 ikuskatze baino gehiago. Atzo Bizkaiko Gasolindegietako Elkartek jakinarazi zuenez, kontsumitzaileei iruzur ez egitea da ikuskatze horien guztien helburua. OCU kontsumitzaileen elkarteak landu berri duen txosten baten arabera, Madrilgo 21 gasolindegietatik seik kobratutakoa baino %4 erregai gutxiago ematen diote erabiltzaileari, eta jokaera hori «orokortu» nahi izana gaitzetsi zuen Bizkaiko patronalak. Industria Saileko lurralde ordezkariak eragin izan dituzten estatistikek erakusten dutenez, gasolindegietako sektorea da EAEn legehauste gutxien izaten den merkataritza arloa, eta neurri handian aipatu ikuskatzei zor zaie hori. X

■ Angel Arnedo da atzotik 'El Correo'-ko zuzendari berria

JOSE Antonio Zarzalejos Nieto ordezkatu du Angel Arnedo Gilek 'El Correo' egunkariako zuzendaritzan. Atzo egunkariaren erredakzio nagusian egin zuten ekitaldian izendatu zuten Arnedo zuzendari. Zarzalejos Grupo Correoko zuzendari editoriala izango da aurrerantzean. 1910ean 'El Correo' eratu zenetik, egunkariak duen zortzigarren zuzendaria da Arnedo Gil. 1945ean jaio zen, Errioxan; Nafarroan lizentziatu zen Informazio Zientzietan, eta kazetaritza munduan Errioxako 'La Gaceta del Norte'-n eta Bilboko Radio Nacionalean egin zituen lehenengo lanak. 1970ean hasi zen 'El Correo'-n, nazioarteko saileko erredaktore gisa; gerora, eskualde sailean eta lokalean aritu zen, Ibar Ezkerreko informazioa bere gain hartuta. 1974an Arabako edizioaren ardura hartu zuen, eta 1984an zuzendariorde izendatu zuten. 1990etik zuzendari laguntzailea izan da. X

■ Eraso zioten Eibarko neskatalaren ikastetxeak «neurri pedagogiko egokiak» hartuko ditu

EIBARKO (Gipuzkoa) Itzio Bigarren Hezkuntzako Institutuak «egoki diren neurri pedagogikoak» hartuko ditu, aurreko astean lau eskolakidek 14 urteko beste bati ustez eraso ziotela eta. Herenegun gauean bildu zen institutuko kontseilu eskolarra; eraso gaitzetsi zuen epaitegietan salaketa ezarri dutela gogorarazi zuen eta zehaztu zuen epaileak argitu beharko duela erantzukizunak norenak diren. Horrezaz gain, ustezko eraso zentrotik kanpora jazo zela ere azpimarratu zuten kontseilurikideek. Ustez eraso izan zuen neskatala ez da eskolara itzuli. Haren gurasoek ustezko erasotzaileak eskolatik kanpora ditzatela eskatu dute. Ertzaintzan jarritako salaketaren arabera, ostikoak eta ukabildak eman zizkieten alabari. X

■ Eroskiko janari laboratoriorik ENAC erakundearen egiaztagiria jaso du

EROSKI taldeak janaria kontrolatzeko duen laboratoriorik Kreditazio Erakunde Nazionalerako (ENAC) agiria jaso du. Hala, egiaztagiri hori jasotzen duen elikagai banaketako lehen enpresa bihurtu da Eroski. Kooperatiba horrek duen laboratoriorik hogei urte egin ditu produktuen kalitatea aztertzen, bai mikrobiologikoki eta baita kimikoki ere. Elorrioren duen egoitzan 200 tresna analitiko baino gehiago dituzte, eta urtean 40 analisi baino gehiago egiten dira. Eroskiko laboratoriorik, besteak beste, txekor haragiaren kalitatea aztertu eta haren egoera ona egiaztatzen dute. Espainiako abeltzainekin elkarlanean egiten du azterketa hori. Berriki, Aenorrek kalitate sistema hori ISO 9002 nazioarteko arauarekin balioztatu zuen. X

XOUSE SIMAL



Sukaldaritzaren zentroa Bilboko hirigunean

Bizkaiko Foru Haziendaren egoitza nagusia zena, aurrerantzean sukaldaritzaren zentroa izango da. Bilboko Gran Vian Viandar de Sota izeneko zentro bitxia zabaldu zuten atzo iluntzean Juan Carlos eta Iñigo Erkorekak eta Mikel Zeberioak. Bertan, besteak beste, sukaldaritzan preziazkoak diren Vinoteca Ontegiaren ardoak, Joseito urdaiazpikoak, Michel Geuther-en foie-ak edo Oñate-en pintxo txiki-txikiak aurki daitezke. Bestalde, txotx garai hasi berriaz gozatzeko jada ez da Gipuzkoa aldera joan behar, Sagardi izeneko sagardotegia zabaldu baitute Bilboko hirigunean.